

KARABAKH GARAICO ERREPUBLIKAKO BURU-HAUSGARRIA

Natalia Boronat

Azerbaijanen mehatxupearan alde batetik eta aliatu omen den Errusiak baztertuta bestetik sentitzen dira Karabakh Garaiko herritarrak, «lau eguneko gerran» azerbaijandarren erasoari eutsi eta gero. Testuinguru triste horretan egin berri da ezkontza berezi bat Shushiko elizan.

Azerbaijanek egin duen erasoarekin azken egunotan gertatu dena amesgaizto bat da; badirudi gizakion bizitzak ez duela baliorik, ezin dugu bizitza normal bat izan, ezin ditugu planak egin eta mundua ez da konturatu ere egiten hemen gertatzen ari denaz», esplikatu digu Gayanek, Shushiko elizaren atarian ezkongaien zain dagoela. Karabakh Garaiko Errepublikan dago Shushi hiria, Artsakhen armenieraz. Hego Kaukasoko lurralde honetan Armenia kristaua eta Azerbaijan musulmana ari dira elkarren aurka borrokan. Gaur egun 150.000 armeniar inguru bizi dira bertan.

Armeniarren eta azerbaijandarren arteko borrokak apirilaren hasieran itzuli ziren. Arma astunak eta makina bat hildako. 1994an aurreko gerrari amaiera eman zitzaionetik ez zen hain borroka gogorrik izan eskualde honetan. Garai hartan ez Moskuko agintariak ez Bakukoak ez ziren gauza izan Karabakh Garaiko Errepublika Sobietar Autonomoaren eskaria betetzeko: lurraldeak Azerbaijan utzi eta Armeniarekin bat egitea. Sobietarren legeek onartzen zuten aukera hori. Gainera, autodeterminazio eskubidea onartuta zegoen. Baina agintariek porrot egin zuten.

Lehenengo gerrak 30.000 hildako eragin zituen. Azerbaijandar jatorriko herritarrek ihes egin behar izan zuten. Ondorioz, segurtasun eremuaren ondoko Azerbaijango lurrak armeniarren mendean geratu ziren. Azken borroketan, «lau eguneko gerra» deitu zaion gatazka armatuan, armeniarrek ofizialki 98 hildako onartzen dituzte, eta beste aldean esaten dute 300en bat azerbaijandar hil zirela. Azerbaijango agintariei Armeniakoei baino gehiago kostatzen zaie gatazkari buruzko informazioa ematea eta atzerriko kazetariak akreditatzea.

Gatazkaren azken kapituluak garbi utzi du errepublika hau oso hauskorra dela, eten gabe Azerbaijanek mehatxatuta sentitzen baita. Normaltasuna du helburu, baina oraindik ez du lortu inongo estaturen ezagutza. Bi aldeek gauza bera egin dute: besteari leporatu su-

etena apurtu izana. Artsakheko herritarrek uste dute ez dagoela zalantzarik eta Bakuk antolatutako erasoak izan dela. Batzuek diote aurreko gerran galdu zituen lurrak berreskuratu nahi dituela; beste batzuek, gerra handi baten entsegua izan dela. Beste tesi batek dio Azerbaijango agintariek beharrezkoa zutela barne arazoak ahaztu edo estaltzeko guztien etsaiaren aurka egitea.

Pixkanaka gonbidatuak iristen hasi dira ezkontzara. Gehienak emakumeak dira, gizonak mobilizatu egin dituzte-eta. Ezkontza hau salbuespena da, dolu egunotan ez baitago festarako gogorik. Izan ere, hildakoak ehorzten ari dira oraindik eta herritar guztiak daude erne. Ez dago lasaitzerik. Baina ezkontza beste baterako uzteko aukerarik ez zegoen, ezkongaiak oso urrutitik etorri direlako: Karabakh Garaiko Lena Asryan eta Josep Maria Sanz katalana Tarragonako Altafulla herritik etorri dira ezkontzeko asmoz.

Narine Aghabalyan Artsakheko Kultura ministroa andregaiaren izeba da: «Etengabeko mehatxupearan bizi bagara ere,

beldurrari aurre egin behar diogu eta bizitza normalari eusten saiatu, bizitza ez dela amaitu azaltzeko».

Gayane bezalako gazteek ez dute zalantza izpirik: lehenengo gerra amaitu ondoren jaio zirenez, ez dira inoiz Azerbaijanen bizi eta garbi esaten dute Artsakh armeniarra dela eta lur hori babesteko borrokarako prest daudela. Herritar batzuek kristautasunaren eta islamaren arteko borroka ere ikusi dute gatazkan. Baita armeniar genozidioaren jarraipena ere: Turkiako Gobernuak diseinatutako sarraskian milioi eta erdi armeniar hil zituzten 1915 eta 1923 artean. Azerbaijango herritar gehienek azerbaijaneraz (turkiar hizkuntza bat) egiten dute.

BAKUK EROSITAKO ARMAK

Armeniako tradizio erlijiosoen arabera egin dute ezkontza. Doluak ospakizunari distira kendu badio ere, bakearen, justiziaren eta herrien arteko laguntasunaren aldeko brindisak egin dituzte. «Jainkoak gure soldaduei indarra eman diezaiela, guk atzealdean honelako ezkontzak os-

Karabakh Garaiko Lena Asryan eta Josep Maria Sanz katalana Tarragonako Altafulla herritik etorri dira ezkontzeko asmoarekin. Emakume asko eta gizon gutxi hurbildu dira ezkontzara, gatazkaren eraginez.

Pedro MANSALVA



Goiko irudian, Karabakh
Garaiko herritarren
manifestazio bat. Behekoan,
agintariak Erevan hiriburuan
egindako desfile batean.
Pedro MANSALVA

patzerik izan dezagun», esan du bere
brindisean Ashot Ghulian Artsakheko
Parlamentuko presidenteak, andregaia-
ren aita pontekoak.

Artsakhen azerbaijandarren eraso gel-
diarazi izanaz harro daude, baina Parla-
mentuko presidenteak gogoan du nazio-
arteko komunitateak ez ziela jaramonik
egin Bakuko agintariak arma asko eros-
ten ari zirela esan zutenean, armeniarren
aurkako kanpaina bat abian jartzen zu-
ten bitartean. «Orain nazioarteko era-
kundeei dagokie gatazka konpondu eta
gerra geldiaraztea. Argi esan beharko lu-
kete Azerbaijanek egin zuela eraso. Hori
espaziotik ere ikus daitekeen zerbait da.
Azerbaijan erakunde horietatik kanpora-
tu egin beharko lukete, beste eraso bat
egin aurretik bi aldiz pentsa dezan», esan
digu Ghulianek.

Masis Mayilian Atzerri ministro ohiak
Foreign and Security Police in Artsaj ize-
neko *think tank*-a zuzentzen du. Bere iri-
tziz, «lau eguneko gerrak Azerbaijanekin
adostutako itunen bitartez gatazka kon-
pontzeko aukera urrundu egin du, bake



negoziazioak bukatu arte tirorik ez egite-
ko klausula bortxatu egin dute-eta». Ma-
yilianen ustez, une honetan su-etena in-
dartzu beste erremediorik ez dago. Ga-
rrantzitsutzat jotzen du Artsakh na-
zioarteak ezagutzea ere, bere segurtasu-
na berma dezakeen mekanismo bakarra
delakoan.

MOSKUREN JARRERA BIKOITZA

Mundu osoko armeniarrak mobilizatu
ditu azken gerrak. Batzuk bertara joan di-
ra azerbaijandarren erasoari aurre egite-
ra. Gainera, Stepanakert Artsakheko hiri-
buruak ezohiko bilera bat hartu du: Aram I.a Siseko Armeniar patriarka eta

Karekin II.a Armeniako Eliza Apostoliko-
ko burua elkarrekin egon dira.

Geopolitikak ez die batere laguntzen
Artsakheko herritarren nahiei. Turkiak
beti adierazi izan du Azerbaijanen aliatu
dela eta Errusiak aditzera ematen zuen
Hego Kaukasoko bere bazkide nagusia
Armenia zela. Baina gatazka hasi denean,
Erevan Armeniako hiriburuko analista
batzuek ikusi dute Moskuk jarrera bikoit-
za zuela: Armenia eta Azerbaijanen arte-
ko orekari eutsi nahian, eta Erevanekin
sinatuta dituen defentsa akordioei erre-
paratu ere egin gabe, Errusiak Bakuko
agintariei ere saltzen dizkie armak. Ar-
menian uste dute azken urteotan Kremli-
nek izoztutako gatazka moduan eduki
nahi zuela Karabakh Garaikoa, Hego Kau-
kasora egonkortasuna iritsi ez dadin eta,
horrela, bere bitartekari zereginari euste-
ko. Aditu batzuen arabera, Moskuren po-
litika horren helburua litzateke bere tro-
pak borrokan ari diren indarren artean
kokatzea, era horretan Errusiak Hego
Kaukason duen posizioa indartzuz.

Ikuspegi horretatik abiatuta, azken
egunetan armeniar asko hartzen dituz-
ten lekuetan Errusiaren aurkako protes-
tak egin dira, Hego Kaukasoko egoera
ezegonkortzea leporatuta.

**Gayane bezalako gazteek ez dute zalantza izpirik: lehenengo
gerra amaitu ondoren jaio zirenez, ez dira inoiz
Azerbaijanen bizi eta garbi esaten dute Artsakh armeniarra
dela eta lur hori babesteko borrokarako prest daudela**

**Artsakhen azerbaijandarren eraso geldiarazi izanaz harro
daude, baina Parlamentuko presidenteak gogoan du
nazioarteko komunitateak ez ziela jaramonik egin Bakuko
agintariak arma asko erosten ari zirela esan zutenean**

